ASTEKARIA - 2010eko martxoaren 12an - XIII. urtea - Usurbil, 400. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua !!



Gure Pakeako sariek badute jaberik




# Seinale digitalera egokitzeko garaia da


Udaberria Urtinean
Zatoz
eta jantzi kolorez
zure etxe, balkoi
zein lorategia
Urtinea Lorategia
San Esteban auzoa


iosu
serigrafia
serigiosu@serigrafiaiosu.com
·kamiseta inprimategia
·pegatinak
·iragarki nahiz industri serigrafia
·laneko arropak
·enpresa opariak
·boligrafoak
·txiskeroak
·laser markaketak...
www.serigrafiaiosu.com
Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL


FUNERARIA
GONZALEZ
EHORZTETXEA
munalurra 8, Usurbil
943 36 21 63
660 388 652 - 608 16 77 92
·Zerbitzu azkarra eta etengabea 24h
·BEILATOKI GUZTIETAN zerbitzuak
·ERRAUSKETA eta errauts-kutxak
·Ospitale zentru eta egoitzetan zerbitzu
·ASEGURU konpaini GUZTIAK
·Lekualdaketak, eskelak..,
·Asegururik EZ duten familientzat
Usurbilgo beilatokia DOAN izango da
gure eskutik
info@funerariagonzalez.es
www.funerariagonzalez.es

## Albistea iruditan !!

# Elurra ekarri zuen Emakumeen Nazioarteko Egunak

Hamar egun barru hasiko da udaberria. Hala dio egutegiak. Baina eguraldiari erreparatuz, negua gure artean gustura dagoela dirudi. Aste honetan, elurra izan da protagonista, beste behin ere. Astelehenean, Emakumeen Egunean, elurrak zuritu zituen bazter denak. Eguerdirako urtu bazen ere, argazki eder asko utzi zizkigun.

Horietako batzuk gure webgunean, www.noaua.com helbidean aurkituko dituzue. "Argazkitegia" atalera jo eta *Elurra martxoaren 8an* izeneko karpetan aurkituko dituzue argazki hau bera eta astelehen goizean atera genituen argazki gehiago.



ATALLUKO URBANIZAZIOAREKIN BATERA EGINDAKO PARKETIK ITXURA HAU ZUEN ASTELEHEN GOIZEAN KAXKOAK.

## Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

POTXOENEAKO LANAK HASTERA DOAZ ____ 5. OR.

GALDEKETAREN GAINEKO BALORAZIOAK ____ 6. OR.

ZIORTZAK 25 URTE BETE DITU ____ 8. OR.

GURE PAKEAREN JUBILATU ASTEA ____ 9. OR.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARAAN

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LAUKOTE
OKINDEGIA KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal). 943 36 09 80

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 · 943 370 344

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* *USURBIL*



UGAITZ AGIRRE

# 1+3=6

On Kixote Shakespearek idatzi zuen. Zerua berdea da. Monetek “La maja desnuda” pintatu zuen. Saharak Alemaniarekin muga egiten du eta Gobin munduko oihan tropikalik handiena dago. New York eta Los Angeles 1945ean bonbardatu zituen Japoniak eta Parisen inoiz ez da komunarik izan. Diotenek gezurra diote triangelu angeluzuzen bati begira daudenean. Suak ura itzaltzen du, uraren formula H2 da. Hostoak udaberrian jausten dira. Elizak larrutan egitea onartzen du, nahiz eta amoranteak oraindik ez egon ezkonduta. Hippiek Vietnameko gerra bultzatu zuten, boluntario gisa armadari laguntzeko prest azaldu ziren, baina gobernuak ukatu egin zuen eskaera Sobietar Batasunarekin aliantza osatzeko asmoa baitzuen Afrika bien artean banatzeko. Egunsentiaren jarraian dator gaua eta ilargia karratua da. Objektuek ez dute bolumenik eta eztia mikatza da. Hiztegiak z-tik hasten dira eta t-rekin amaitzen…

Kontua ez da zer esaten den, baizik eta nork esaten duen. Gezurra eta egiaren artean bada tarte bat, baina askotan ez dugu ikusi nahi izaten beti ez baitatoz bat gure ideiekin.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - **Ugaitz Agirre** - Unai Agirre - Idoia Torregarai

# “Euskal (Napar) Estatu baten bideragarritasun ekonomikoa” aztertuko da hitzaldi batean

**Burujabetza eta Estatalitateari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Nafartarrak Kultur Taldeak. Lehen hitzaldia datorren astekoa izango da. Oxkar Arantzabal ekonomian aditua da eta balizko euskal (napar) Estatu baten bideragarritasun ekonomikoari buruz arituko da martxoaren 18an Sutegin.**

“Estatu independente baten bideragarritasun ekonomikoa: euskal gizartea garai berezia bizitzen ari da, inflexio garaia. Eragiten duten krisiek norabide aldaketa sakona marrazten dute; ekonomia mailan, ekoizpen sisteman; nazioarte mailan globalizazioan; politika mailan, aro luze baten bukaera. Etorkizuneko aukera gisa Estatu burujabe baten bideragarritasunaz hausnartzeko garaia da orain”. Hala dio Nafartarrak taldeak antolatu duen hitzaldiaren sinopsiak.

## Sarrera doan

Burujabetzari buruzko jardunaldi hauek bideratzeko, Nafartarrak Kultur Taldeak Nabarralde eta Usurbilgo Udalaren laguntza jaso du. Lehen hitzaldia Oxkar Arantzabalena izango da, martxoaren 18an osteguna, arratsaldeko 19:00etan Sutegin.



IAZ ANTZEKO JARDUNALDIAK ANTOLATU ZITUEN NAFARTARRAK TALDEAK ETA INDEPENDENTZIA IZAN ZEN AZTERGAIA.









# Laster hasiko dira Potxoeneko lanak

**Sutegi kultur etxearen osagarri, herri eragileen biltoki eta ekimenak gauzatzeko habi, azpiegitura, edota informazio zein laguntza gune. Norbanako zein elkarteei, heldu eta gazteei zabalik. Udalak iragartzen duenez halakoa izango da Potxoenea eraikina, hamabost hilabete barru, eraberritze lanak amaitu ondoren.**



KULTUR ERAGILEEN BILGUNEAN BILAKATU NAHI DA POTXOENEKO ERAIKINA.

Udalaren aurreikuspena beteta, 2011ko uda parterako Irazu kaleko Potxoenea eraikinak zabalik behar luke, Sutegirekin batera kultur gunean bilakatu eta eraberrituta. Hilabete honetan bertan, gutxi barru hasiko dira hamabost bat hilabetez luzatuko diren lanak.

Duela bi legegintzaldiko erronka dela gogorarazten du Xabier Mikel Errekondo alkateak eta ordutik, bere esanetan, "hasieratik argi ikusi genuen, Usurbil bizi bat nahi bagenuen, kultura sustatu eta erraztasunak eman behar genizkiola". Kultura sustatzeko duela ia bost urtetik zabalik den kultur etxearen osagarri lanak egingo ditu Potxoeneak, alkateak adierazi bezala, "Sutegiren baliabideak mugatuak dira eta".

## Talde eta elkarteen topaleku

Eraikineko behe solairuan Euskara, Kultura eta Gazteria udal departamenduak kokatuko dituzte, herritarrek behar adina informazio edota laguntza jaso dezaten. Eraberritze lan hauetan bestalde, Udaletik iragarri dutenez eragileen materiala jasotzera bideratuko den sotoa handituko dute. Lehen solairuan berriz, kafe-puntua zabaldu nahi dute, herri eragileen topalekua izango dena. "Oso txukun funtzionatuko duela uste dut, kultur eragileak eta herritarrak koordinatzeko eta elkarren berri izateko. Bertan mugimendu dezentekoa izango da, kultur eragile guztiek izango dutelako aukera bertan aritzeko", adierazi du alkateak. Eta noski, ez dira faltako erabilera anitzeko gelak ere; ekitaldi eta bilera gelak, informatikako tresneria…

## Kultura Aholku Batzordearekin elkarlana

Potxoeneko egungo fatxada bera errespetatuko da. Eraikin berritua herriko talde zein norbanakoentzat, heldu baina baita gazteentzat ere irekia egongo da, Errekondok argudiatu duenez, "udaletxeko ustezko egitura karratu horretara hurbildu behar izan gabe, hemen kalean bertan sentituko dutelako". Eta plazatik gertu gainera, kaxkoan. Adin tarteei bakarrik zabalik ez noski, ekimenak sortzeko laborategi edo lantegi antzeko bat izango da Potxoenea. Alkatearen arabera, "ilusio eta ideia oro duen edonoren gunea. Edozein ekimen sortzeko habia izango da". Bertako dinamikak herritar guztiei kutsatuko diela iragarri du alkateak.

**LANAK HASTERAKO**

"Obrak irauten duen bitartean, Potxoenea eta elizaren arteko bidea ez da itxiko oinezkoentzat"

Nahi baino luzeagotzat jo duen prozedura administratiboan, Kultura Aholku Batzordean biltzen diren kultur arloko herri eragileen lana azpimarratu nahi du gobernu taldeak. "Kultura Aholku Batzordean hogeita hamarretik gora eragilek parte hartzen dute, eta argi genuen, haiekin landu behar zela egitasmoa", adierazi du Errekondok. Egitasmoaren egitura eta helburuak Batzordearekin batera zehaztu dira.

Batzordeak bultzatuta, bestelako bi neurri ere hartuko ditu Udalak aurten, biak herrian antolatuko diren ekitaldien iragarpenari lotutakoak; batetik, Sutegin, Santuenea elkartean, Zubietan, Kiroldegian edota Artzabalen antolatutako ekitaldien berri emateko panelak jarriko ditu Udalak. Bigarren neurria, Errekondok iragarri duenez, "kaleko paretak garbitzea izango da, pasatako karteldegia astero kentzea". Ekitaldiok antolatzera, 90.000 euro bideratuko ditu Udalak 2010ean. Irizpideak ere finkatzeko lanean aritu da Kultura Aholku Batzordea, eta alkateak dioenez, "aurten horren isla ikustea espero dugu".

## Lanak direla eta, oharra

Lanerako erabiliko den tresneria Potxoenea atzealdean kokatuko da. Irazu kalea, soilik Potxoenea eraikinaren parean itxiko da. Herrira gora egiteko beraz, plazara joan beharko da. "Potxoenea eta elizaren arteko bidea ez da itxiko oinezkoentzat", gogorarazi du alkateak.

### Potxoenea, datutan

**Egitasmoa:** Potxoenea, kultur eragileen bilgunea.
**Aurrekontua:** 800.000 euro inguru.
**Lanen hasiera:** 2010eko martxoa.
**Lanen iraupena:** 15 hilabete.

# Hamaikabat Usurbil alderdiarentzat, galdeketaren "emaitzak duinak eta oso onak izan dira"

**Herri galdeketaren ondoren, NOAUA! alderdi eta giza mugimenduekin harremanetan jarri zen. 5 edukiontzien aldeko Herri Plataformak eta Hamaikabat Usurbil (H1!) alderdiak ez zuten balorazioirik eskaini zenbaketa gauean, baina pasa den ostiralean emaitzen balorazioa bidali zigun H1! alderdiak. Balorazio osoa www.h1usurbil.net webgunean aurkituko duzue.**

"Baikorrenak ere espero ez zuen partehartze maila". H1! Usurbil alderdiaren ustez, "arrakasta honek frogatzen du galdeketa beharrezkoa zela. Beharrezkoa zen orain urtebete atez atekoa inposatu aurretik eskatzen genuenean, ANV eta Aralarrek -publikoki- kontsultaren beharra ezeztatzen zutenean".

Kontuan izanik ze baldintzetan garatu den kanpaina, emaitza duina eta oso ona dela dio Luismari Ormaetxea buru duen alderdiak.

### 5 edukiontzien alde lanean

Euren ustez, kontrako elementu asko gainditu behar izan dituzte, "nahita eginiko eta sistematikoa izan den benetako informazioa herriari ematearen ukazioa; 5 edukiontzien alde apustua egiten genuenon eta atez atekoaren alde apustua egiten zutenen arteko desproportzioa bitartekoei dagokionez; azken hauek izan dituzte: udal baliabide ekonomikoak, materialak eta langileria –udalaren neutraltasun promesa ez beteaz–, San Markos mankomunitateko bitartekoak –komunikabide arduradunaren dedikazioa eta lehendakariordearena–, alkatearen dedikazioa, ia erabatekoa azken asteotan; atez atekoaren alde alderdi guztiek bat egitea Hamaikabat-ek izan ezik".



5 EDUKIONTZIEN AUKERA DEFENDATZEN JARRAITUKO DU H1! ALDERDIAK.

Baldintza horietan, 5 edukiontzien aldeko aukerak lortu dituen emaitzak duinak eta oso onak izan direla diote.

## Emaitza onartzen du H1! alderdiak

Onartzen dute "galdeketan atez atekoaren aukerak irabazi egin duela. Era berean argi geratu zaigu herritarrek ulertu dutela 5 edukiontziena alternatiba erreala dela atez atekoarekin erkatzen badugu".

H1!-en ustez, "5 edukiontziena; sistema merkeago eta ekonomikoki jasangarriagoa da, bere ordutegi malguarekin erosoagoa, herri garbiago eta txukunago bat lortzen da, autokonpostajearekin konpatiblea, askatasunean arduratsuak eta kontzientziatuak diren pertsonetan oinarritua dago, Atez atekoarekin berdindu daitezkeen`benetazko´ birziklatze tasak lortu daitezke eta Usurbilek ez luke zabortegi bat beharko bere lurretan beste Gipuzkoako herriekin batera arituko ginatekeelako. Horren alde lanean jarraituko dugu".

## "Atez atekoak porrot egingo du"

Atez atekoa "aurkeztu zenean ohartarazi zen sistema honek arrakasta izango zuela, soilik, herritarren ahalegin handiarekin eta sistemarekiko konpromiso handiarekin".

H1! alderdiaren esanetan, "frogatu da atez atekoak herritarren erresistentzia handia duela. Botoa eman dutenen % 44a aurka izanik, goizago edo beranduago, sistemak porrot egingo du".

Emaitzak ikusirik "alkateari eskatzen diogu Usurbilek dituen arazoetan, ez direla gutxi, bere ahaleginak jarri ditzala, (...) ez dezala erabili udal lan taldea `hondakinen ruta turistikoa´ garbi mantentzeko, ez dezala erabili udaltzaingoa berak egin beharko lukeen lana egiteko, hau da herritarrak konbentzitzen".

## Galdeketak haustura eragin duela uste dute

Emaitzak eskuetan, H1! alderdiak uste du "%56 atez atekoaren alde, %44 aurka, nabarmenki azaltzen dute Usurbilen dagoen herri haustura. Udal gobernuak, alkatea buru, arazo sozial bat du mahai gainean (…). Alkatearen ekimen arduratsu eta benetakoarekin bere ondoan izango gaitu elkarrekin bake soziala kudeatzen".

Galdeketaren formulazioa hasieratik zalantzan jarri zuen H1! alderdiak: "atez atekoaren aurka zeudenen botoa zatitzea zuen helburu lau edukiontzien aukerak. Estrategia honek goitik behera porrot egin du. (...) 26k bakarrik aukeratu dute 4 edukiontzi nahi dituztela. Hamaikabat eta Herri Plataformak eginiko informazio kanpainak manipulazio saiakera hau agerian jarri du".

# Atez ateko bilketa sistema, Urnietako udaletxean aztergai

**Atez ateko bilketari buruzko eztabaida pil-pilean dago Gipuzkoa osoan. Eztabaida hori Urnietako udaletxean eman zen pasa den astean. Udal gobernuak atez ateko sistema aztertzeko ekimena jarri du martxan.**

Urnietan UDA izeneko herri plataforma batek irabazi zituen azken udal hauteskundeak. Horri esker, Mikel Izagirre da alkatea. Martxoaren 5ean, Urnietako Udaleko gobernu batzordean aurkeztu zuen atez atekoa martxan jartzeko proposamena. Oposizioko talde nagusiak, ordea, aurka azaldu dira. EAJ-PNVk Urnietan 5 edukiontzen aldeko apostua egin du.


Urnietako alkateak galdeketako emaitzak jarraitu zituen Usurbilen bertan.

# Jesus Uzkudun (CCOO) atez ateko bilketa ezagutzen izan zen

CCOO sindikatuko ordezkari Jesus Uzkudun atez ateko bilketa ezagutzera hurbildu zen aurreko astean. Xabier Mikel Errekondo alkatearen eta San Marko Mankomunitateko lehendakari orde eta ingurumen zinegotzi Imanol Azpirotzen eskutik, bilketa zer modutan burutzen den edota atez atekoaren emaitzen informazioa jaso zuen Uzkudunek. Gainera, alkateak duela aste batzuk errauste egitasmoaren inguruko sei urteko moratoria eskaeraren berri ere eman zion. CCOO sindikatuak bat egin du moratoria eskaera horrekin.


Sei urteko moratoria eskaerarekin bat egin du CCOO sindikatuak.

## Lasarte-Oria Bizirik, atez atekoa Gipuzkoa osora hedatzearen alde

Pasa den asteburuan herrian burututako galdeketan lortutako emaitzengatik usurbildarrak zoriondu nahi ditu Lasarte-Oria Bizirik plataformak. Atez ateko bilketaren inguruan esandako gezurren eta bost edukiontzien sistemaren inguruan burutu den kanpaina desinformatzailearen gainetik, herritarrek atez ateko bilketak funtzionatzen jarraitzearen alde agertu direla diote. Usurbildarrak koherentzia eta ardura lezioa ematen ari direla dio Lasarte-Oriako bilguneak eta gogorarazten dutenez, "herritarrak errraustegia baino askoz teknologia hobea dira". Atez ateko bilketa sistema Gipuzkoa osora hedatzea eskatzen dute.

## Orioko Herrio Taldea: "Lehen sinesten genuen, orain badakigu"

Orioko talde honek esker oneko hitzak bidali nahi ditu NOAUA!ren bitartez, "usurbildarrek erakutsi digutelako posible dela pixka batekin asko lortzea; erakutsi digute ez dela zaila ohiturak aldatzea, helburuak merezi duenean; erakutsi digute aukerak egon badaudela, zaborrak kudeatzeko garaian. Lehen sinesten genuen, orain badakigu. Hortaz, Orio eta oriotarrak, anima gaitezen gu ere bai: posible da".

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.com

ZUBIAURRENEA 4 USURBIL
i ileapaindegi mistoa
943361951

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

# Ziortzako kanpamendura joateko, martxoa bukatu baino lehen eman behar da izena

**Uztailerako lau bat hilabete falta izan arren, Ziortza Gazte Elkartekoak udako oporraldiari begira jarriak daude. Aurten ere, kanpaldia antolatzeko lanei ekin diete. Lehenbizi, izen emateko epea zabaldu dute martxoak 31 arte. 2010. urte hau berezia izango da Ziortzarentzat, 25 urte beteko baititu. Gazte elkartekoak mende laurdeneko ospakizunak burutzeko prestaketetan murgilduta daude jada.**

Belardiko eguneroko jokoak, nautikora bainatzera egindako irteerak, gau belak, hiruzpalau eguneko ibilbideak zaku eta janariz betetako motxilak bizkar gainean hartuta… Zenbat oroitzapen izango ditu, honez gero Ziortza Gazte Elkarteak antolatutako udako kanpamendura joan den usurbildar belaunaldi oso batek.

### Bi txanda egingo dira

Udako esperientzia berrituko da aurten ere, 11-16 urte arteko ikasleei zuzendutako eskaintza prestatzen ari baitira Ziortzakoak. Udako kanpamendua antolatzen hasiak dira jada; uztailean burutuko diren bi txandak zehaztuak dituzte. Lehen Hezkuntzako 5 eta 6. mailetako ikasleek uztailaren 18tik 24ra parte hartu ahal izango dute kanpamenduan. DBHko 1, 2, 3 eta 4. mailetako ikasleek uztailaren 5etik 18ra luzatuko den txandan.

Izena emateko epea zabalik egongo da, martxoaren 31 arte. Antolatzaileek esku orri bat prestatu dute eta Udarregi ikastolan eta Ziortzak antolatu ohi dituen saioetan banatuko dituzte. Bestela, apaiz etxeko postontzi ondoan ere eskura litezke esku orriok. Bertan aipatzen diren datu pertsonalekin bete eta aipatu postontzian utzi behar da. Informazio gehiago nahi duenak posta elektroniko honetara e-mail bat bidali dezake: ziortzage@gmail.com.

Bestela, apaiz etxera joan eta galdetu. Elkartetik kanpamenduan parte hartzera animatu nahi dituzte Usurbilgo gaztetxoak.



APAIZ ETXEAN ESKURA DAITEKE KANPALDIEN INGURUKO INFORMAZIO GEHIAGO.

## Ziortzak 25 urte beteko ditu aurten

Mende laurdena beteko du aurten Ziortza Gazte Elkarteak eta ez da oharkabean pasako. Gazte Elkarteko kideek mende laurdena ospatzeko asmoa dute. Besteak beste, urteotako ibilbidea, gerora jendaurrean erakutsi nahiko luketen argazki bilduma batean islatu nahi dute. Hori dela eta, elkartetik honako oharra plazaratu nahi dute: “25 urte hauetan Ziortzak antolatutako ekintzetan parte hartu baduzu eta bilduma horretan zure argazkiren bat ateratzeko edozein eragozpen baduzu, mesedez jarri gurekin harremanetan martxoaren 31 baino lehen”.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ALIPROX
Kale Nagusia 10
✆ 943 361 182
USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf. 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

# Gure Pakeako sariek badute jaberik

## Martxoaren 22tik 28ra ospatuko da Jubilatu Astea

**Indartsu hasi dute urtea Artzabalen. Gure Pakea elkartekoek urteko ohiko batzar orokorra burutu zuten lehenik, otsailean bazkideen arteko txapelketak jokatu zituzten eta hamar egun barru Jubilatu Asteari hasiera emango diote. Hitzaldiak, antzerki saioa eta bazkaria antolatu dituzte, martxoaren 22tik 28ra.**



OTSAILEAN JOKATU ZIREN GURE PAKEAKO BAZKIDEEN ARTEKO TXAPELKETAK. ARGAZKIA SARI BANAKETAKOA DA.

Otsailean jokatu ziren bazkideen arteko mahai joko eta mugimendu txapelketek badute irabazlerik. Punttuan, Mario Jimenez eta Obdulio Martinezek irabazi zuten. Tutean Elena Maioz eta Maria Orbegozok. Musean Luis Cuerdok eta Vicente Leronesek eta igel jokoan, Leronesek baita. Ondoko irudian ageri dira aipatu txapelketa guztiotako irabazleak.

### HITZALDIAK JUBILATU ASTEAN

"Jubilatu Astean, osasunarekin lotutako bi hitzaldi izango dira"

2010eko lehen hiruhilekoa amaitzeko, Jubilatu Astea antolatu du Gure Pakea elkarteak. Osasunari lotutako bi gai jorratuko dituzte hitzaldi banatan. Parkinsonaren aspektu psikologikoak martxoaren 22an eta bi egun beranduago, aisialdi aktiboak norbere bizian eta osasunean duen garrantziari buruz jardungo dute, Artzabalgo egoitzan, 16:30etik aurrera.

### Txerriki taldearen antzezlana

Txerriki antzerki taldekoek ere Jubilatu Astean parte hartuko dute, "Hiru Desioak" antzezlanarekin. Ixabel Agirresarobek zuzenduta, Joxe Torregarai, Maitere Alkorta, Kattalin Arzallus eta Ana Arostegi aktore lanetan jardungo dute, 17:30etik aurrera.

### Bazkaria Aialde Berrin

Martxoko azken igandean, hildako bazkideen omeneko meza izango da. Jarraian, Aialde Berri sagardotegian bazkaria antolatu dute.

Leku mugatua izango da, 55 lagunentzako bazkaria izango da. Bazkarirako izena eman liteke jada, martxoaren 18ra arte. Sagardotegiko menua dastatu ahal izango da.

Sarrerak 20 eurotan salgai Gure Pakeako bazkideentzat, 26 eurotan gainerako jubilatuentzat.

### Jokoetako irabazleak

**Punttuan,** Mario Jimenez eta Obdulio Martinez.

**Tutean,** Elena Maioz eta Maria Orbegozo.

**Musean,** Luis Cuerdo eta Vicente Lerones.

**Igel jokoan,** Vicente Lerones.

LATAILLADE ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8,behea · 943 363 348 · 609 888 021

Usurbil Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa,
Aitzezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92
943 36 10 79

# Telebista aro digitalera prestatzeko garaia heldu da

**Badator itzalaldi analogikoa. Gutxi barru, seinale digital bidez jasoko ditugu telebista kateak. Lehen baino gehiago, irudi kalitate hobearekin eta interaktibotasunerako aukerarekin. Jauzia emateko prest al gaude ordea? Aldaketaren bat egin behar ote dugun, zer eta nola, berri emateten du Hernaniko Aldamar antenen dendako teknikari Patri Aldak ondorengo lerrootan.**

**NOAUA! Hasteko, argitu iezaguzu Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) esanahia zein den.**

**Patri Alda.** Teknologiaren aldaketa bat dagoela esan nahi du. Orain arte seinale guztiak analogikoak ziren, eta hemendik aurrera, digitaleko seinaleak izango dira. Lehen zegoen espazio bera gehiago aprobetxatu ahal izango da eta espazio horretan funtzio gehiago izango du telebistaren seinaleak; interaktibotasuna, informazio gehiago ere sartuko dute. Horretan datza, Lurreko Telebista Digitalak.

**ALDAKETA GEHIAGO DATOZ**

> “Urte gutxi barru definizio altuko seinale digitalaren probak hasiko dira, telebista are hobeto ikusteko”

**N. Zer abantaila izango ditu erabiltzaileentzat?**

**P. A.** Kalitate aldetik hobeto ikusiko da telebista. Espazio berdinean programa gehiago sartuko dira. Horrek esan nahi du, orain arte 50 telebista kate sartzen ziren lekuan orain adibidez berrehunentzat tartea egongo dela. Urte gutxi barru bestalde, definizio altuko seinale digitalaren probak hasiko dira, telebista are hobeto ikusteko.




PATRI ALDA LANEZ GAINEZKA DABIL EGUN HAUETAN. NOAUA!RI ADIERAZPENAK EGITEKO TARTE BAT HARTU ZUEN AURREKO ASTEAN.

**N. Aldaketarik izango da, seinalea jasotzerakoan?**

**P. A.** Seinalea orain arte bezala jasoko da. Orain arte antena batzuk zeuden teilatuetan, antena horiek ere mantenduko dira. Orain arte seinale analogikoa bidaltzen zuen errepikagailu analogikoak seinale digitala bidaliko du. Jasotako seinalea anplifikadore batzuetara joaten da. Anplifikadore horiek aldatu beharko dira. Halere, bezeroak ez du aldaketa handirik sumatuko. Materiala berdina da, aldatzen dena teknologia da, seinalea. Telebista ikusterakoan nabarituko da aldaketa.

## LTD duzun edo ez jakiteko, froga erraza

Zalantza izan dezake herritar batek baino gehiagok ia aro digitalerako prestatua duen etxeko telebista. Jakiteko modua erraza da. Aukeretako bat, jabeen erkidegoko administratzaileari galdetzea litzateke. Bestela, norberak proba egin dezake, bizilekutik mugitu ere egin gabe. “TVE1, ETB1, Antena3, Telecinco, Cuatro eta Teledeporte, sei telebista kateok ikusten badira, antena egokitua izan edo seinale guztia jasotzen duela esan nahiko du”, argitu du Patri Aldak. Aldiz, aipatu sei kateotatik lau bakarrik sintoniza badaitezke, Aldaren esanetan, “seinalea errebote bidez jasotzen ari da eta antena oraindik ez dago guztiz moldatua”. Kasu horretan, errebisioa egin beharko da.

### Euskaltelen bidez telebista ikusten dutenak

Euskaltelen eskutik, zuntz optikoa edo fibra optikoaren bidez telebista ikusten duenak ez du ezer egin behar. Telebista kateak orain bezala, berdin berdin ikusiko ditu itzalaldi analogikoa ematen denean.

# “Lehen telebista oso gaizki ikusten zen lekuetan aldaketa dezentekoa nabarituko dute”

**NOAUA. Kalitatea hobetuko da?**

**Patri Alda.** Analogikoan, errepikagailua bistan ez egoteagatik seinalea gaizki harrapatzen bazen, irudiak bikoiztuta edota elur bolatxoen antzekoak ikus zitezkeen pantailan. Seinale digitalarekin hori guztia aldatuko da; hemendik aurrera, telebista ikusiko da edo ez, punturik edota irudi bikoitzik gabe. Ikusi edo ez ikusi, horretan egongo da desberdintasuna. Seinale digitalarekin irudia “pixelatzen” hasten bada, seinalea erortzear dagoela esan nahi du, abisu moduko bat izango da.

**N. Auzune sakabanatu asko du Usurbilek, egungo seinalea argi jasotzen ez dutenak. Digitalizatzearekin hori guztia konponduko al da?**

**P. A.** Irudia bikoiztuta edota pantailan elur bolak ikusten zituzten lekuan, orain aldaketa egongo da. Teknologia digitalarekin ondo ikusiko dute edo telebista ez dute ikusiko. Errepikagailuak estalita egon edo oso urruti daudelako telebistarik ikusi ezingo balute, plan bat badago, lurreko telebista satelite bidez jasotzeko. Horretarako pauso batzuk eman behar dira. Lehenbizi, telebista ikusten ez den bizilekuaren kokagunea identifikatu behar da. GPS-aren bidez koordenada batzuk ateratzen dira eta seinalea ez dela ailegatzen konprobatzen dute. Gerora, bezero horiei sintonizadore berezi bat bidaliko zaie. Kasuotan, telebista ez dute lurreko errepikagailu bidez ikusiko, satelite bidez baizik. Paraboliko bat jarriko diete.

**N. Txokoaldeko hainbat bizilagunen kasua izan liteke hori, ezta?**

**P. A.** Errebote moduan sartzen zen seinalea Txokoaldeko zenbait etxebizitzetan. Errepikagailua moldatuta badago, seinalea askoz hobeto jasotzen da. Orain, telebista ondo ikusiko dute. Ez bada seinalea jasotzen, bezero horiei paraboliko bat jarriko zaie eta telebistaren seinalea satelite bidez ikusiko dute. Lehen telebista oso gaizki ikusten zen lekuetan aldaketa dezentekoa nabarituko dute.

**N. Zuek ere lan karga handiagoa nabarituko zenuten azken aldian?**



ANTENAK GARAI BERRIRA EGOKITZEKO GARAIA DA.

**P. A.** Dena azken momentura arte uzten dugu denok. Bagenekien gertatuko zela eta azken hilabete hau eromena izan da. Denak urduri daude, telebista gabe geratuko direla eta. Ez dituzu nahi dituzun instalazio lan guztiak egiten, eta beti presaka lanean. LTD-a moldatzen, sateliteak edo parabolikoak jartzen aritzen gara. Etxeetara joaten gara, seinalea nola dagoen konprobatzen dugu. Anplifikadorea jarri eta errebisatzen dugu. Telefono zenbakiren bat uzten dugu informaziorako.

## Gipuzkoan itzalaldia luza liteke

Azken asteotan telebista pantailan agertu izan da, emisioa etengo dela martxoaren 10etik aurrera. Estatu mailan hala iragarria dago. Gure inguruan, Gipuzkoa mailan ez ordea, itzalaldia martxoaren 30erako iragarria baitago. Patri Aldaren ustez halere, “hau pixka bat luzatzea espero dut, bestela jende asko gera liteke telebista gabe”.

Ofizialki halakorik inork ezer esan ez duen arren, Jaizkibelgo errepikagailuari tarte handiagoa emango diotela uste du Aldak, Gipuzkoako gainerako errepikagailuak aldatu ahal izateko. Alegia, seinalea ez dutela moztuko iragarritako egunean, nahiz Aldaren esanetan, “agian potentzia jaitsiko dute”. Ez baita ahaztu behar herrialdearen orografia menditsua. “Araba adibidez nahiko herrialde laua da, errepikagailu gutxirekin dena hartzen dute. Gipuzkoan Usurbilen bakarrik, bizpahiru errepikagailu moldatu behar dira”, adierazi du Aldak.

### Aginagako errepikagailua

Horren lekuko, azken aldian burutzen ari diren lanak. Aldak gogorarazten duenez, “Aginagako errepikagailua duela gutxi moldatu dute”. Joera bera nagusituko da udalerri txikietan bereziki. “Errepikagailuak azken unera arte ez dituzte moldatuko”, gaineratu du. Prestaketa lanak garaiz burutzeko administrazioak baliabide gehiago ez dituela dio, ez dela herritarren arazoa beraz, eta jendea moldatzeko eman den denbora tartea, eskasa izan dela iruditzen zaio.

## Kate frantziarrak inon baino hobeto ikusten dira kaxkoan

Kontrasteen herria da Usurbil, telebista kate kontuetan. Ia Gipuzkoa osoan jasotzen ez diren telebista kateen seinalea jaso dezakete, kaxkoko zonalde batzuek. Frantsesezko hogei bat telebista kate sintoniza daitezke, orografiari esker. “Badirudi Larrundik Usurbila seinalea zuzenean sartzen dela, autopista moduan”, adierazi du Aldak.

Bere esanetan, Irun eta Hondarribian soilik ikus daitezke aipatu telebista kateak, ez Usurbil inguruko herrietan, ezta Donostian bertan ere.

# Herritar ugari Donostiako 21. Lilatoian

**Emakumeen Nazioarteko Egunaren bezperan ospatu zen Donostiako 21. Lilatoia. Emakumeentzat antolatutako lasterketa herrikoian 21 usurbildarrek hartu zuten parte. Hona hemen Lilatoiaren web gunean aurkitu ditugun herritarren denborak.**

Eceiza Iruretagoiena, Idoia 0:20:03
Urdanpilleta Martikorena, Elhuiar 0:24:10
Udabe Pagola, Arantxa 0:25:45
Eizagirre Bruño, Eli 0:27:09
Saldaña De La Fuente, Amparo 0:27:41
Aizpurua Irazusta, Ana Isabel 0:28:34
Olasagasti Intxausti, Gema 0:30:12
Begiristain Otegi, Iratxe 0:30:28
Circujano Morales, Ines Maria 0:30:42
Garcia Rodriguez, Sonia 0:31:25
Fernandez Perez, Naiara 0:31:34
Tapia Alkorta, Maier 0:31:50
Bengoetxea Ugarte, Karmele 0:31:53
Hueta Rodriguez, Lurdes 0:32:20
Iturbe Barrena, Maite 0:32:53
Teijido Unanue, Laida 0:33:06
Zuloaga Segurola, Olatz 0:33:07
Egileta Arribillaga, Presentacion 0:35:33
Zinkunegi Ugartemendia, Amagoia 0:35:36
Unanue Agirrezabala, Leire 0:35:45
Estella Arranz, Josune 0:36:02



1.700 KORRIKALARI IZAN ZIREN AURTENGO LILATOIAN.



# Gazte ugari Haur Kantari Txapelketan

**Aniztasuna zerion Zumarte Musika Eskolak Udalarekin batera antolatutako Soinurbil Musika Astearen seigarren edizioari. Musika ardatz hartuta, formatu desberdinetako emanaldiak tartekatu baitira amaitu berri den zikloan.**



ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEK AZKOITIARREKIN BATERA EMANALDIA ESKAINI ZUTEN, VI. SOINURBIL MUSIKA ASTEAN.

Antzerkia edota txotxongiloak aritu ziren Sutegiko oholtza gainean, “Haur Kabareta” emanaldian. Jatorri desberdinetako folk musika ekarri zuten kultur etxeko auditoriora, “Hariots” taldeak. Soinurbil ekimena, Zumartek antolatuta izanik, ezin ahaztu, musika eskolako ikasleak ere. Senitarteko eta lagunen aurrean emanaldia eskaini zuten, azkoitiarrekin batera. Urola bailarako udalerrikoekin elkartrukea egiten ari dira eta.

Eguraldi ona lagun izan zuen bestalde, martxoaren 7rako programatua zuten ekitaldiak ere. Hondarribiko Hiria musika bandak girotu zuen Kaxkoa eguerdi partean. Amaieran, kontzertua eskaini zuten frontoian.

### Jendetza larunbateko saioan

“Piano bat bertsotan” emanaldira bertaratutakoek aukeratutako euskal kantak jo zituzten Ainhoa Ansak eta Jagoba Astiazaran bikoteak. Eta ezin ahaztu, herriko zenbat gaztetxok parte hartu zuen Gipuzkoako Haur Kantari Jaialdian. Haira Riverok, Leire Zubigaraik, Nekane Larrañagak, Irati Martikorenak, Ane Bengoetxeak, Ane Zinkunegik, Miren Izetak eta Ione Iruretagoienak Lain taldearen "ez nazazu iratzar" abestu zuten. Bakarlari gisa, Jon Etxabek Ken 7 taldearen "Zapalduen olerkia" eta Sara Gutierrezek “Amets bat". Oihana Arsuagak eta Maialen Iñarrak Etzakit taldearen "urrun izan arren" eta "Itzulerarik gabeko joana" (Alaitz eta Maider) kantak abestu zituzten.

## Antzerki ikastaroan izena emateko aukera dago oraindik

Abian da gaztetxoen antzerki tailerra. Martxoaren 6an burutu zuten lehen saioa. Izen emateak zabalik jarraitzen du, halere: 680 742 504 (Nekane) edo 657 711 335 (Maite). LH 3, 4 eta 5. mailako ikasleei zuzenduta, guraso talde batek antolatutako ekimena izan da.



AURREKO LARUNBATEAN HASI ZEN ANTZERKI IKASTAROA.

# Martxoaren 24an, elizako organoa hobeto ezagutzeko aukera

Ekitaldi gehienak ospatu diren arren, Zumarte musika eskolak eta Udalak antolatutako Soinurbil Musika Astea ez da amaitu oraindik. Seigarren edizioa bukatzeko ekitaldi bat ospatzea falta da. 2007an ehun urte bete zituen Salbatore Elizako organoa ezagutzeko bisitaldi pedagogikoa antolatu da, martxoaren 24rako, 18:00etan. Organoaren Lagunak taldeko kide Juan Luis Atxegak egingo ditu gidari lanak.



MARTXOAREN 24KO BISITALDIA IREKIA IZANGO DA, INTERESA DUEN EDONORI ZUZENDUA.

# Ekain-Berritik Zumaiara

**Otsailaren 25ean, 9:00etan autobusa hartu genuen eta Zestoara joan ginen. Zestoatik Ekain-Berriko erreplikara mendi bide batetik joan ginen.**

Iristean, DBH 1B mailakoak erreplika ikustera joan ziren eta DBH 1A mailakoak tailer ezberdinak ikustera. Erreplikak, benetako kobazuloak dituen ezaugarriak zituen, eta ezaugarri bitxiena "Zaldi-Buru" izeneko arroka bat zen. Esan zigutenez, han bizi izandako lehen gizakientzako zaldiak jainkoak ziren, eta horregatik, ia pareta guztietan marrazturik zeuden, batzuk bukaturik eta beste batzuk, erdizka utzita.

Esan zigutenez, distantziak ez ziren benetakoaren berdinak, baizik eta gela handi batean zegoen dena eta irudi, harri... Bakoitzetik 20 metrora egon beharrean 4 edo 5 metrotara zeuden. Tailerrean, berriz, lehen gizakiek erabiltzen zituzten lanabes ezberdinen izenak eta erabiltzeko moduak erakutsi zizkiguten. Hori esan eta gero, probatzera joan ginen, eta entrenamendu pixka bat egin ondoren, txapelketatxo bat egin genuen, batzuk jaurtigailuekin dianara ematera eta beste batzuk arku eta geziekin.

Ekain-Berriko ekintzak eta bisitak amaitzean autobusa hartu eta Zumaiarantz abiatu ginen. Han "flysch"ak zeuden hondartza batera joan ginen. Han geundela, bazkaldu eta 15:30ak arte denbora pasan edo jolasten ibili ginen, batzuk olatuen ondorioz goitik behera bustitzen eta besteak futbolean jolasten edo harri bitxiak aurkitzen ibili ginen. 15:30ak iristean, ziztu bizian, autobusa hartu eta Usurbilera etorri ginen.



EKAIN-BERRI BISITATU ETA TAILER EZBERDINETAN PARTE HARTU ZUTEN UDARREGIKO IKASLE HAUEK.



"EKAIN-BERRI BISITATU ONDOREN, ZUMAIAKO FLYSCH-AK DAUDEN HONDARTZAN IZAN GINEN".

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

Otar-Goxo
Elikagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

izAgirre
ELEKTRIZITATEA
943 36 50 95-609 06 81 11
izagirrelektrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

# Euskadiko Txapelketa eskura dute

## Eskubaloiko jubenil mailako neskak denboraldi txukuna osatzen ari dira

**Euskadiko Txapelketa eskura dute, buru-belarri garaipena eskuratzeko lanean dabil eskubaloiko jubenil nesken taldea. Azken asteburuan jokatzekoak izan eta giltzarriak ziren bi neurketak irabazi ditu talde honek. Nerea Agudorekin batera, entrenatzaile lanetan dabilen Asier Salsamendik lerrootan gogorarazten duenez, "talde bati irabazi behar dietela buruan sartzen zaienean, ez dago geldiaraziko dituenik".**



JOKATZERAKOAN ESKAINTZEN DUTEN MAILA OSO ONA DELA DIO TALDEKO ENTRENATZAILEAK, ASIER SALSAMENDIK.

**NOAUA! Maila mantentzea helburuetako bat zen, beteta jada?**

**Asier Salsamendi.** Hasieratik, datorren denboraldiari begira, Euskal Liga mantentzea izan da helburua. Ikusten genuen maila ona zutela, baina jokalari kopuru justua genuen. Euskal Ligak bi fase ditu eta lehenengoa pasa genuen. Orain Euskadiko Txapelketa jolasten ari gara. Asteburu honetan bi partida jokatu eta irabazi ditugu; ostiralean Ermuako Errotaberriri eta larunbatean Zarautzi. Momentu honetan sailkapen buruan gaude, bigarrenari 2 puntu atereaz. Beraz, ia-ia klasifikatuak gaude Euskadiko txapelketako fase finalerako. Bertan asteburu batean lau talde onenak elkarren aurka lehiatuko dira eta bi onenak Espainiako sektorera joango dira.

**N. Nola bizi ditu uneok taldeak?**

**A. S.** Taldea gogotsu dabil, baina tentsio puntuarekin. Federazioak amaiera fasea jokatzeko gutxi gorabeherako datak jarriak ditu eta Institutuko ikasleen kurtso bukaerako bidaia egun horietan antolatu da. Bestela, jokalari batzuk kirol jarduera guztietan bezala, eskubaloia gehiago bizi dute. Taldean gehiago inplikatuta daude eta partidetan borrokatu eta beste gauzak utzita entrenamendu saioetan parte hartzen dute. Beste jokalari batzuentzat berriz, eskubaloia ez da lehentasuna. Guretzat, ikasketek dute lehentasuna, eskubaloia baino lehen. Halere, eskubaloian denok helburu bera dugu, denok goaz norabide berdinean.

**N. Aurkari talde gogorrenak gainditu dituzue, beraz.**

**A. S.** Teorian, gogorrena Zarautz zen. Euren etxean berdindu genuen. Asteburu honetan Usurbilen irabazita, aurrerapauso handia eman dugu. Hasiera batean, gurekin borrokan aritu behar zuen taldea bestalde, Ermuakoa zen. Atzeratutako partida asteburuan irabazi dugu.

**TALDEAREN INDARGUNEA**

"Talde bati irabazi behar diotela buruan sartzen zaienean, ez dago geldiaraziko dituenik"

**N. Denboraldian zehar, entrenatzaile aldaketa izan duzue.**

**A. S.** Denboraldi hasieran, Karlos Kutz aritu zen entrenatzaile bezala, Usurbilen hamar bat urtez egon zen entrenatzen. Arazo pertsonalek bultzatuta, penaz baina taldea utzi behar izan du. Nerea Agudo eta biok eramaten ari gara taldea orain.

**N. Aurrera begira nola ikusten duzu taldea?**

**A. S.** Taldean batzuk daude, eskubaloia bizi egiten dutenak, eta horregatik, denbora ahal duten lekutik ateratzeko gai dira. Helduen mailan datorren denboraldian gogoz jarraitzeko dagoen talde bat bada. Hemen inguruan ikasten geratzen direnek, jarraituko duten sentsazioa dut. Goiko taldearentzat mesede litzateke, taldea mantentzeko nahiko lanekin dabiltzalako eta hauentzat aukera bat litzateke, eskubaloian jarraitu ahal izango dutelako goiko talde horretan.

**N. Taldearen indar guneak zeintzuk dira?**

**A. S.** Jokatzeko moduan duten maila oso ona da. Txikitatik ikasi dituzten gauzak argi dituzte. Nahi dutenean oso ondo hartzen dute elkar eta oso motibatuta jolasten dakite. Talde bati irabazi behar dietela buruan sartzen zaienean, ez dago geldiaraziko dituenik. Izan dira gu baino maila kaxkarragoa zuten aurkariekin jolastu eta galdu ditugun partidak. Eta izan dira, talde onenaren aurka, oso maila ona eman eta oso ondo ibili garen neurketak ere.

Aurten jokatzen hasi diren hiru jokalari oriotarrak eskertu behar ditugu, beti taldearen ona bilatuz egiten duten ahaleginagatik. Eskubaloian hasi diren futboleko neskei ere eskerrak eman, taldea osatzeko jokalari aldetik justu samar ibili gara eta.

## Agenda !!

**Martxoak 18 osteguna**
- "Euskal (Napar) Estatu baten bideragarritasun ekonomikoa", hitzaldia Oskar Arantzabalen eskutik, 19:00etan Sutegin.

**Martxoak 24 asteazkena**
- Organoaren erakustaldi pedagogikoa, 18:00etan Salbatore elizan. Soinurbil.
- "Uhin elektromagnetikoek pertsonengan duten eragina", hitzaldia. Hitz-Ahok antolatuta, 18:00etan Udarregin.

**Martxoak 26 ostirala**
- "Erreka Mari", txotxongiloak Bihurri ludotekan, 17:30ean.

### Goardiako farmaziak

**Martxoak 11, osteguna**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 12, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 13, larunbata**
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 14, igandea**
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

**Martxoak 15, astelehena**
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

**Martxoak 16, asteartea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

**Martxoak 17, asteazkena**
Gil, Nagusia 24 Lasarte

**Martxoak 18, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

**Martxoak 19, ostirala**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 20, larunbata**
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

**Martxoak 21, igandea**
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

*GOARDIAKO FARMAZIA,GAUEZ*
***Chucla farmazia** (22:00-09:00),*
*Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

# Asteburu honetan, txirrindulari lasterketa Zumartegin

**Txirrindularitza zaletasun gisa bultzatzeko gaztetxoentzat hitzordu berria antolatu du Buruntzazpi txirrindulari eskolak, Zumartegi industrialdean, larunbat honetarako.**

Usurbil eta Lasarte-Oriako kirolariak biltzen dituen Buruntzazpi txirrindulari eskolak lasterketak antolatu ditu, larunbat honetarako, martxoak 13. Zumartegi industrialdean (Atxega jauregi ondoan) burututo dira, arratsaldeko 16:30etan hasita. Infantil eta jubenil mailako txirrindulariek parte hartuko dute. Urtero antolatzen ari diren proba honekin, tradizioa sortzeko bidean dira Buruntzazpikoak.



LARUNBATEAN, 16:30EAN HASIKO DA LASTERKETA.

## Kanape eta pintxo prestaketa, sukaldaritza tailerra Agerialden

Etumeta AEK euskaltegiak sukaldaritza tailerra antolatu du. Martxoaren 24an asteazkena izango da kanape eta pintxo ikastaroa, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Bi orduko iraupena izango du. Izena emateko, aldez aurretik telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 372 001.



MARTXOAREN 24AN HASIKO DA.

## Birentzat otordua irabazi du Iruin sagardotegian

Martin Leozek bi lagunentzat otordua irabazi du Iruin sagardotegian, eskubaloi elkarteak antolatzen duen errifa zozketan. Leozek zuen 6.102 zenbakia izan da saritua. Ohi bezala, eskubaloi elkartekoek zozketan parte hartzen duten jatetxe eta herritarrak eskertu nahi dituzte.



MARTIN LEOZ, SARIA ESKUETAN.







### ETXEBIZITZA

- Etxe txiki bat alokairuan hartuko nuke, 1 edo 2 logelakoa. Deitu 687 616 024.
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- San Inazio kalean etxea salgai. Dena berritua eta hiru balkoi ditu, oso eguzkitsua. 686969112.
-Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat saltzen da Alfaron (Errioxan). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herritik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela tximenearekin, sukaldea, komuna eta portxea. 675702428 (gauetan).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Interesatuak deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
-95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldaketak egiteko aukera asko. 638279184.
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
-Santuenea 26an 60metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
-Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

### SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Aprilia Leonardo 125 motorra sagai, egoera onean. 700 euro eta iraila arteko segurua barne. 665715321

- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
-Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
-Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Mendiko terrenoak erosiko nituzke. Basoa ateratzeko edo basorik gabea ere bai. 943362237.
-Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414. 280 euro hilean.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. 943361265.
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

### LANPOSTUAK

**Lan-eskaerak**

- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziduna. 658107757
- Esperientziadun emakumea behar da goizez etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Hiru orduz: goizeko zazpietatik hamarretara. 687 055 166.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

**Lan-eskaintzak**

- Urte asko herrian daramatzan emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak edota haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi malgua. 687 348 223 edo 943 364 310.
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
-Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
-Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Iñaki: 677 44 31 40.
-Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Pertsona helduak zaintzeko neska bat eskaintzen da. Esperientziduna. 606 800 837.
-Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
-Emakumea interna edo goiz zein arratsaldez orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

### BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Mugikor bat galdu da, Samsung markakoa. Tf: 636 39 32 37.
- 1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
-Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
-Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Otsailaren 20an txamarra marroi bat galdu nuen Olarrondon. 600768570.
1,35 metroko ohe artikulatu berri bat daukat salgai 450 eurotan. 688803528.
- Bideo-muntaiak egiten dituen pertsona bat behar dugu. 943 374061.
- 160 luzera x 30 zabalera x 77 altuerako kaoba koloreko komoda bat daukat prezio onean salgai. 636540788
- Otsailaren 3an belarritako bat galdu dut Usurbilen. Perla txuri bat dauka. Eskertuko dugu. 943365958
- Bi zilarrezko eraztun galdu ditut. Batek hiru delfin ditu eta besteak bat. Balio sentimental handikoak. 666177913
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
-Dorleta Kinkildegia traspasatzen da. 609099824.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan. Telefono zenbakia: 616260451
-7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke, 200 bat euro. 606 101 980.
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
-Atxegalden 30 metro karratuko lokal bat alokatzen da (lehen Truke). 943 373 414.
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



**Zorionak Pitusita!!** Martxoaren 8an egin dituzu 2 urte. Zorionak eta muxu potolo bat Juantxo eta Edurneren partetik.



**Zorionak Oihan!** Martxoaren 11n egingo dituzu bi urte. Muxu handi handi bat eta belarrietatik bi tiraizo Ianire eta etxeko guztien partez!



**Zorionak!** Martxoaren 13an 7 urte betetzen dituzunez, zorionak eta muxu potolo-potoloak. Etxekoak.



**Zorionak** gure etxeko printxesari!! Martxoaren 11n 2 urte egingo dituzu eta ongi ongi pasa, famili guztiaren partetik. Muxu eta patxo asko.



**Zorionak Garazi!** Martxoaren 13an egingo dituzu 5 urte. Zorionak eta besarkada handi bat etxekoen partez. Ondo pasa!



**Zorionak Erfrank Huete Fonseca!** Ondo pasa zure 8. urtebetetze egunean, muxu handi bat gurasoen partez eta Celeste arrebaren partez!

## HILDAKOAK



**Jose Luis Pagola Landa**
Martxoaren 3an hil zen
67 urterekin

Jaiotzak, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotakoak dira. Zorion-agurrak, hildakoak, oharrak... Ekarri edo bidaltzeko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. erredakzioa@noaua.com

# TXOTX!!


AIALDE BERRI
Tel.: 943 365 031
Mugikorra: 670 027 731
Santuenea


LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA
Urtarriletik apirilera
TXOTX GARAIA
Ostiral, larunbat eta igande
eguerdietan IREKITA
Astelehenetan ITXITA
Larre-Gain Baserria Ereñotzu - Hernani
Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867


SAIZAR
Betiko Sagardoa
Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 362 228
www.sidrassaizar.com


ELUTXETA
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA
Urte guztian irekita astelehena izan ezik.
Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ✆ 943 55 69 81


ERRETEGIA·NEKAZALTURISMOA
ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA
Egunero irekia.
Arratzainzar Baserria
info@agroturismoarratzain.com
Telf: 943 36 66 63
20170 USURBIL


✆ 943 36 12 29
iruin
sagardotegia
Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com


AGINAGA
Sagardotegia
Urte osoan txotxetik
Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxa: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68
a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com












## "OLARRONDOKO GAUAK"

·Ostiral eta larunbatetan
apirila azkenerarte,
**GAU GIROA,** DJ Izania
gaueko 12tik aurrera.

·Helduentzako urtebetetzeak:
(tarta aukerarekin)

· Despedidak
(guk antolatzeko aukera)

## MENUA

**Eguneroko menua.**

OSTIRAL GAUA BARNE
MENUA 16€
edaria, ogia eta
kafea barne

**Olarrondo Jatetxea**
5 zenbakia. USURBIL
erreserbak: ☎ **943 360 376**
**www.olarrondo.com**